

Prest!

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

193 zenbakia
2018 uztaila

Prest!



BERBETAN: **BEA ARREGUI GAMIR** FUTBOL EPAILEA

ERREPORTAJEA: **TINTIGORRI, 40 URTE** BARKUA: **KANALAREN BESTE ALDERA**

TOKIKOM

187-188-189-190-191-192



Gure babesleak



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Prest!

izan


Harpidetu

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

HONA:
Prest! aldizkaria
Ramon y Cajal 42
Deustua 48014
94 447 10 42

EDO HONA:
bilbokoaldizkariak@gmail.com

	Arantza Etxebarria - Gaizka Suarez 	Iritzia	4
	Jon Hormaetxe Castells 	Gurera etorria	5
e	erreportajea Tintigorri, 40 urte		
	<i>Aurten 40 urte beteko ditu Aste Nagusiak eta berarekin Tintigorrikeri ere, Deustuko konpartsa. Horren kide den Gerardo (Gerar) Perezekin elkartu gara urte hauetako ibilbidea berregiteko.</i>		6
	Ongi etorri Saniko jaiak! 	Jaiak	10
	Karabeneroak, zinegotzia eta harakinaren semea 	Behin batean	12
	Euskal Herriko Eslaviarren kultur elkarteak 	Artikulua	14
b	berbetan BEA ARREGUI GAMIRrekin		
	<i>16 urterekin futbola utzi eta duela bost urte itzuli zen berdegunera, baina beste era batean: epaile gisa. Iaz emakumeen lehen mailako arbitro izatera igaro zen, Euskal Herrian aitzindaria.</i>		16
	Amaitu gabeko amaiera, 2008 	Irdiak berbetan	21
			24
	ARRAUNA Deustuko kanalaren beste aldera		
	SAREKADA Klik eta klik		
	PINTXODROMOA Panpa Bar taberna		
	KULTUR TXOTX Josu Oleaga eta Malen Ortiz Kaltzada		
		barkua bete herba	

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustua 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Jone Gartzia eta Lur Mallea

Erredakzioa: Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez

Kolaboratzaileak: Gaizka Suarez, Arantza Etxebarria, Josu Oleaga, Janire Soldevilla, Laura Freijo, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioeko eskola

Argazkiak: Iñigo Azkona

Publizitatea: Lur Mallea

Diseinua: BOST

Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01

ISSN: 1577 - 9017



Lekukoa emateko PREST!

Euskal lurretan lehen gizon emakumeak egon zirenetik mendeetako prozesuak gaur ezagutzen dugun Euskal Herrira ekarri gaitu. Orduetik asko izan dira garatu ditugun jarduera komunitario, ohitura, ikur, sinismenak... Horietariko askok gaur gure komunitatea ezaugarritzen jarraitzen dute; beste batzuek, aldaketa sakonak jasan dituzte eta badira desagertu direnak ere.

Euskal Herria ez da errealitate zurruna, egunez egun erakitzen den zerbait baizik. Batzuek iraganeko iruditegi batean ahaztuak nahi gaituzten arren, euskaratik bere burua berrasmatzen jarraitzen duen herria gara. Ukatuak, baztertuak, zapalduak... baina, ez diogu inoiz existitzeko dugun eskubidearen alde borrokatzeari utzi, belaunaldiz belaunaldi lekukoa emanaz bizirik mantendu dugu herriaren taupada. Ikastolak sortu ditugu, kooperatibak, euskararen aldeko mugimendua, jai herrikoiak... Hori guztia, konpromisoen bitartez soilik izan da posible.

Urtebetez nire pentsamenduen plaza izan den aldizkari hau ere aipatutako konpromisoek emandako fruituen beste adibide bat da.

Gertuko gaiak gure hizkuntzan Deustuko 2800 etxe baino gehiagotara eramaten dituena. Baina, proiektu honek badu konpromiso berrien beharra: aldizkaria edukiz betetzeko PREST!, bazkidetzarekin ekarpen ekonomiko txiki baina ezin beharrezkoagoa emateko PREST!, edota proiektua jende gehiagori zabaltzeko PREST dauden eskuak behar dira.

Datorren urtean atal hau beteko duenari lekukoa emateko PREST! nago. Hala ere, beste hainbat konpromiso txiki izango dira beharrezkoak aurrera jarraitzeko. Askotan bidea ez da erraza baina, guk egiten ez badugu, ez du inork egingo. Aurrera bolie!



Arantza Etxebarria Iturrate
arratiarra Deustun



Denporea arin joan jaku

Irakurle, ikasturte osoa alkarregaz egin dogu, eta ailegau da agur esateko eguna, guztiok arnasea hartzeko momentua. Guzuzra dala esan leiteke horrenbeste hilabete igaro diranik. Irailean hasi genduan bidea tipi-tapa biok batera. Oporretatik etorri barriak ginan, eta aireportuetan niri neuri zer pasetan jatan azaldu neutsun orduan.

Urrian, argazki-erakusketa batek arimea ikutu eustan, eta nire barrua zabalduta, ni neu be arima-jagole nazala kontatu neutsun. Azaroan, bildurkilik, nire fobiak zein ziran konfesau neban, zoritxarrez, holangoak asko daukadaz eta.

Neguko hilabete hotzetan, abenduan hain zuzen be, konaturatu nintzan txikitasetatik abiatu behar dogula handi izateko, eta horrezaz ohartzan lagundu ninduan 11 egun euskaraz ekimenak.

Hori gitxi balitz, urtarrilean sumau neban bardin dala nork bere burua zahar edo gazte ikustea aurrera egiteko beti. Eta otsailean onartu neban adizinoz josita nagoala,

eta, bide batez, albo ondorioak euki arren, PREST! zale izateko gonbitea egin neutsun.

Apurka-apurka konfiantzea lortu genduala-eta, gure aitari buruz berba egin neutsun martian, eta harek itxitako zuloa ezerk beteko ez dauala aitortu neutsun. Eta apirilean, barru-barrutik urten jatan askotan ez dodala erantzunik eukiten bihotzez egiten diran galderen aurrean.

Maiatzean iragarri neutsun Euskaraldia ate joka daukagula, eta buru-belarri ahalegindu beharko dogula dinamikea al bait ekologikoena izan daiten. Eta, ekainean, Deustuk udako martxea hartzen eban bitartean, zorrotzaileak neure gogoia txikitako ogibide batera eroan eustan, joskilearen gana hain zuzen be.

Irakurle, bidelagun izan zaitut hilabeteotan, eta alkar ezagutzen dogula esango neuke. Eskerrak emoten deustudaz nire alboan egoteagaitik, hilabete honeetan zure epeltasuna sentidu dodalako. Uda ona izan daizula, eta laster arte!





Jon Hormaetxe Castells

Jatorria: San Inazio

Bizitokia: Xàbia (Valentzia)

Lanbidea: Operazioak eta salmentak



“Xàbiako biztanleen %50a atzerritarrak dira”

Testua
Prest!

Zer dela eta joan zien Xàbiara?

Edinburgon bi urte igaro ondoren eta nire proiektu pertsonal eta profesionalak beteta, Xàbian eskaintza ikaragarria egin zidaten: *Sun and Co.* Izeneko coworking eta coliving bat zabaltzeko kontratua, European lehenetarikoa.

Zenbat denbora daramazu han?

1a 3 urte.

Non gehiago bizi izan zara?

Edinburgon, Eskozian eta Bilbon.

Zertan datza zure lanak?

Sun and Co. urritik lan egiten duten profesionalentzako hotel antzeko bat da. Gero eta jende gehiagok egiten du tel-elana, izan ere, ordenagailua eta *wifia* izanda, edonondik lan egin dezakezu gaur egun. Batez ere, programadoreak, diseinatzaileak, kazetariak, itzultzaileak, online marketing espezialistak eta abar. datoz hona, eta batezbeste 21 gau igarotzen dituzten gurean.

Zelan egokitu zinen? Lagun asko egin duzu?

Gure bezeroak normalean hila-bete inguru gelditzen direnez gurekin, asko lagun bilakatzen dira. Dena den, badauzkat bertoko lagun asko, gehienak *Lindy Hop* dantza klaseetan ezagutu ditut.

Zelakoa da Xàbia?

Xàbia paradisu bat da. Hara

joan baino lehen Benidorm antzeko leku bat zela pentsatzen nuen. baina hara heltzean harritu egin nintzen. Kala oso politak, giro lasaia eta mendiak oso hurbil.

Zein da bertako egoera politikoa?

PSOeko Chulvi da alkatea 2011tik. Xàbiako biztanleen %50a atzerritarrak dira, gehiengo Erresuma Batukoa.

Ze antzekotasun eta desberdintasun daude Bilbo eta Euskal Herriarekin?

Ez dut desberdintasun handirik ikusten, hori bai, siesta hartzea erlijio bat da hemen. Bizi-kalitatea izugarria da itsas ondoan, eguraldi onarekin eta herri batean bizi zarenean. Jende asko honelako lekutara etortzen da oporretan, gero haien errealitatera bueltatzeko. Ni, aldiz, jendea egunerokotasunetik alde egiteko etortzen den lekuan bizi naiz. Interesgarria da planteamendua, errealitatetik eskapatu behar badute, baliteke zerbait aldatu behar dutela haien bizitzan.

Zerk harritzen zaitu gehien?

Bizi-erritmoa. Eguraldia dela eta hemen dena askoz lasaia-goa da. El “mañana, mañana” hemen normala da. Oraintxe bertan, obra egiten dabilta nire etxe ondoan, zarata goizeko zortziretan hasten da eta bederatzietan “almuerzo”

jatera doaz. Nire galdera da, ezin dute “almuerzo” etxean jan eta goizeko bederatzietan zarata egiten hasi? jaja. Hemen, Euskal Herrian bezala, kultura mahai inguruan eta jende artean murgiltzen da. Pozik bizitzeko hori oso garrantzitsua da.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Itsas ondoan bizitzea, eguraldi onarekin, eta herri bizitza izatea.

Zer botatzen duzu faltan?

Poteoak, Athletic ikusteko lagun bat, familia eta lagunak.

Euskaldun asko ezagutu duzu?

Oraindik bat ere ez.

Zer diote euskalduna zarela diozuean?

Jendeak maitasun handiz jasotzen nau. Gustuko dituzte euskaldunak. Ni oraindik valentziera ikasten hari naiz. Nire lagun asko erosoago sentitzen dira valentziaz hitz egiten, beraz, ahalegin handiagoa egin behar dut ikasteko.

Ettxera itzultzeko gogorik edo asmorik daukazu?

Oraindik ez. Niretzat bizitzan garrantzitsuen nahi duzun lekuan egotea da, nahi duzuna egiten. Beraz, nahi dudana lekuan bizi ez naizenean edo nahi dudana egiten ez naizenean beste leku batera mugituko naiz.

TINTIGORRI



TINTIGORRI, 40 URTE

Aurten 40 urte beteko ditu Aste Nagusiak. 1978ko lehen jai herrikoietan parte hartu zuten konpartsetatik zazpik jarraitzen dute martxan. Horieta bat da Tintigorri, Deustuko konpartsa, eta horren kide den Gerardo (Gerar) Perezekin elkartu gara urte hauetako ibilbidea berregiteko.

Testua: Jone Gartzia - **Argazkiak:** Tintigorri

1978. urtera arte zezenak, antzerkiak, barrakak eta zirkua baino ez zeuden Bilboko jaietan, eta apenas zuten oihartzunik hiritarren artean. Hiria ia hutsik geratzen zen abuztuan, bilbotar gehienak oporretan joaten baitziren. Kanpora joan ezin zitezkeen langileak eta jaietako ikuskizunak ordaindu zitzaizketen dirudunak baino ez ziren bertan geratzen.

Urte horretan, lehen jai herrikoiak antolatu ziren. Bultzatzaileetako bat da Zorion Egileor aktore, musikari eta kazetari mun-

dakarra, aurten pregoilari izendatu dutena. 1977ko abuztuan Herri Irratiko *Lagun artean* saioan esatari ari zela galdera hau bota zien entzuleei: "Zergatik Bilboko jaiak ez dira herrikoiak?" Egileorrek jai herrikoien alde zeuden bilbotarrak animatu zituen Hena kaleko egoitzaren azpian elkartu eta manifestazioa antolatzerara.

Ez zuen uste inor azalduko zenik, baina hitzordua ailegatu zenean ezusteko galanta hartu zuen: 5.000 pertsona inguru bildu ziren, txistuak, panderoak eta hamaika ikurrinarekin.



Oharkabeen eta era inprobisatuan, manifestazio alaia egin zuten, Herri Irratiako egoitzatik abiatu eta Plaza Barrian amaitu arte. Hurrengo urtean El Corte Inglesek lehiaketa irekia antolatu zuen bilbotarrek jai herrikoiak antolatzeko proposamenak egin zituzten. Irabazlea Euskal Mugimendu Komunistaren Txomin Barullo taldea izan zen. Horrela, 20 egun eskasean eta ia dirurik gabe antolatu zuten 1978ko lehenengo Aste Nagusi hura.

Gerardoren esanetan, Tintigorriren hasiera ere horrelakoa izan zen, “zoroa”. “Gu hasieratik hutsegite kontzeptuala gara”, aitortu digu barre artean. Konpartsaaren jatorrizko izena “Tintigorri” izango omen zen, Deustualdeko tomateen izena. Lehenengo jaietako pegatinak inprentara bidali zituztenean, ordea, dendariak akats bat zegoela pentsatu eta izena aldatu zuen: Tintigorri. “Ez genuen denborarik izan pegatina berriak egiteko eta izen horrekin geratu ginen”, diosku Gerarrek.

Deustuko konpartsa aurretik sortuak ziren bi talde elkartuz osatu zen: Tomate Egileak (Done Petri inguruakoak) eta Titingorri (Arangoitikoak). Horiei deustuar asko batu zitzaizkien: kuadrilletako jendea eta hainbat eragiletako kideak.

Hasierako Bilboko jai herrikoiak ez ziren oraingoak bezain handinahikoak eta jendetsuak, baina denetarik zegoen: goizetako sokamuturra, igela, xakea, lehiaketa gastronomikoak, suak, barrakak, kale zinema, kullero eta galtzontzillo lasterketa... Lehenengo urteetan orotara 90 konpartsa inguru biltzen ziren jaien inguruan. Urteekin taldeen kopurua egonkortzen joan da, 25 inguruan, eta azkenengo urteotan 29 konpartsek hartzen dute parte askorentzat urteko aste desiratuena dena dinamizatzen.

Aste Nagusian ez ezik, urtean zehar beste hainbat ekintza antolatzen dituzte Bilboko Konpartsek: inauteriak, San Juan sua, konpartsakide eguna...

“20 egunean eta ia dirurik gabe antolatu zuten 1978ko lehenengo Aste Nagusi hura”



Hala ere, Tintigorriko ekintzen muinak Deustu izaten jarraitzen duela argitu digu Gerarrek. Bertoko kirol taldeei laguntzen diete, behar duten eragileei haien lokala uzten diete, Deustuko jai eta inauterietan jarduerak antolatu eta parte hartzen dute...

“Egia da ez dugula Deustuko jaietan eragile bezala jarduten ezta txosnarik jartzen ere, baina Tintigorri Bilboko jaietarako sortu zen eta bertako kideak Jai Batzordeko hainbat eragiletan daudenez, ez luke zentzurik izango gure txosna muntatzeak. Tintigorri Deustuko eragile eta norbanakoek Bilboko jaietan parte hartzeko gunea da”, azaldu digu konpartsakideak.

Hasierako urte haiek

Tintigorriko beteranoaren berbetan, lehen jaiak askoz “kaotikoagoak, inprobisatuak eta zentzu batean diberitgarriagoak” ziren. Jai Batzordeko bilerak Udaletxeko Arabiar Areatoan egiten ziren orduan, eta konpartsak arduratzen ziren ekintza eta kontzertu guztiak ordaintzeaz. Urteak dira ikuskizun handiak kontratatzeke lana Udalari laga zitzaionetik. “Orain dena askoz instituzionalizatuago dago, Aste Nagusia munstro handi bat da”, diosku.

Jaitsiera da Aste Nagusiari hasiera ematen dion ekimena eta 40 urte hauetan denetariako ibilgailuekin egin dute konpartsen jaitsiera: kotxe zaharrekin, autobusekin... Konpartsakideak kontatzen digunez, “behin suhiltzaileren kamioi batean jaitsi ginen Begoñatik eta Hurtado de Amezagan freno gabe geratu ginen! Orain ezinezkoa litzateke hori egitea”. Beste hainbat pasadizo ekarri ditu gogora

Gerarrek. Esaterako, konpartsen ur desafioa, Tintigorri eta Txomin Barulloren arteko lehia bizia bilakatu zena; izan ere, tomate-roek Deustuko konpartsa izenean egiten baitzuten arraun, eta Kaikukoek Txomin Barulloren partez.

Pasadizioen artean, prezioen guda hasi zutenekoa azaldu digu: behin konpartsa batzuek jarritako gehiegizko prezioen aurrean “kostaprezioan baino merkeago” jarri zuten txosnako jana eta edana. Ameli konpartsa-kide eta ohorezko txupineraren istorioak ere kontatu dizkigu. Hasieratik taldean parte-hartzaile sutsuenetakoa izan zen, eta adinez nagusitu arren, ez zion jaietara joateari utzi. “Montajera beti joaten zen”, diosku bere kideak, “aulki batean eseri eta han egoten ziren egunero”. Hil zenean txupinera jantziarekin erraustu zuten, eta 2008ko jaiak amaitzean Mari Jaiaren barruan sartu zituzten errautsok, “berarekin batera berriz erre zedin”.

“40 urte eta gaztaruan”

Oraindik ez dituzte 40. urteurreneko ospakizunak amaitu eta Tintigorriko kideek mende erdikoa buruan dute jad. Uztailaren 7an aurten lau hamarkada betetzen dituzten konpartsen jai antolatu zuten Areatzan, “40 urte eta gaztaruan” lelopean eta Aste Nagusian ere, ekintza bereziak antolatuko dituztela iragarri du Gerardok.

Tintigorri hainbeste urtez mantentzeko sekretuari buruz galdetuta, gakoa “ondo pasatzea” eta “irekiak izatea” dela erantzun digu. Zalantzarik gabe, filosofia eraginkorra da eta ziurrenik luze izango zaie baliagarri.

“Tintigorriko ekintzen muinak Deustu izaten jarraitzen du”



www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

**IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA**



BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT presentation by **ELF**





ONGI ETORRI SANIKO JAIK!

Jai giroz beteko da San Inazio uztailaren 24tik 31ra arte. Joan den urtean 40. urteurrena ospatu ondoren, gogoz hartu dute Jai Batzordeak eta auzoko dinamizatzaile ezberdinek jai hauetako antolakuntza. Umeentzako ekintzek, Auzo Etxeak prestatutako jarduerak eta auzoko hainbat elkarteek bere lekua izango dute jai hauetan.

Testua
Andoni
Lopez Virués,
Saniko
Jai Batzordea

Astlehenean auzoko elkarteek ekintza bat prestatuko dute haien lana ezagutarazteko. Duela hilabete batzuk jaiotako ekimenak bere bigarren ekitaldia aurrera eramango du egun horretan. Ekintza honetan tailerrak, infoguneak eta ikus-entzunezkoak egongo dira elkartei buruz informazioa jasotzeko.



Urtero bezala, Gazte Asanbladak egun oso baten antolakuntza bere esku izango du. Uztailaren 27an urteroko gazte bazkaria izango da ekintza nagusia, bingo musikatua eta argazki solidarioa barne. Gauean Rodeo, Orbelak eta DJ Muble izango dira eszenatokian. Gazte egunean mozorro gaua izango da eta aurtengo tematika "gaizki-leak" izango da.



Iaz jaiotako Errondo Auzo Etxeak berriz ere antolatuko du bertso bazkaria. Aurten Lurdes Ondaro, Ander Ucelay eta Asier Alcedo izango dira bertsolariak. 25ean izango da bazkaria eta bertsoak entzun ondoren auzogestio bidez sortutako Sani Rock musika

ekimena izango da, non Diana Lagartok, Striknirak eta Motorastolak joko duten.

Aurten umeei zuzendutako ekintzak ezin dira ahaztu. Bi kartel oso bete dira auzoko txikiei zuzendutako tailer eta jolasekin. Egutero hainbat jarduera egongo dira haurrentzat prestatuta Sanin. Aurten, urtean San Inazio egondako Txepetx astialdi taldea berpiztuko da umeei auzoan aisirako aukera emateko.

Kuadrilla guztiak biltzen diren momentua ailegatuko da ekintza gastronomikoetan: tortilla, paellak, marmitakoa, sukalkia (22an, jaiak hasi baino lehen) eta indabak. Kuadrillen parte hartzea eta jaiaren ostean gosea sendatzeko modua bilatuko da lehiaketa hauetan.

Aurten musika indartsu dator. 26an Dj



Dronky egongo da saltsa, cumbia eta erritmo latinoekin. Gazte egutegian Rodeo, Orbelak eta DJ Muble. 28an, larunbatean, Akatz eta Glamity Sound egongo dira Levante enparantzan. Azken kontzertuak astelehenean izango dira, Gudazaleak, Shock eta DJ Kastaren eskutik.

Urtero bezala jai giroa indarkeria sexistaz babestuta egongo da, baina aldaketa nabari batekin: aurten jaiotako San Inazio Bilibak talde feministak protokoloa berri du, eguneratua eta erabilgarri izan dadin.

Ezinezkoa da aurtengo ekintza guztiak aipatzea. Kabiako plazatxoan presoan aldeko bazkaria egingo da urtero bezala, Txori Barrote konpartsaren eskutik. San Inazio abesbatzak antolatuko ditu hainbat ekintza, tabernetan egongo diren kontzertuak, saskibalo txapelketa, futbola, poteolinpiadak...

Gogoratu behar da, San Inazio auzoak ez duela onartuko inolako eraso sexistarik, arrazistarik edo homofoborik.

*GORA SAN INAZIOKO JAI
HERRIKOI ETA PAREKIDEAK!!*

 **ARTEBI**

MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN
BILBOKO ESKOLA

**MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA**

Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER
FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303





KARABINEROAK, ZINEGOTZIA ETA HARAKINAREN ANDREA


1865eko urrian Olabeagako kaian egundoko iskanbila sortu zen. Emakume ausart batek karabineroen gehiegikeriak geldiarazi nahi izan zituen. Guardiek bortitz erantzun zuten, legea nahieran erabiliz, baina azkenean, amore eman behar izan zuten. Inon ez da ageri emakume haren izena.

Testua: Hektor Ortega

Lege Zaharreko Bizkaiari, hornidurak kalitate eta prezio egokian bermatzea udal kargudunen ardura izaten zen. Herri txikietan hornidura horiek ardoak izaten ziren. Herri handietan jangaiak ere sartzen ziren: ogia, okela... Herrietarako, gainera, diru-iturria izaten ziren, kontsumoei ezartzen zizkietelako zergak, batez ere ardoei. Hornitze zerbitzua enkantean jartzen zen aldi baterako (adibidez, urte bi) eta errematatzaileak (gehien eskaintzen zuenak, alegia) produktua herrira ekartzeko ardura hartzen zuen bere gain, gutxieneko kalitate bermatuz eta Udalak ezarritako prezioa errespetatuz. Ordainean, eskusibotasuna zeukan. Inork ezin zuen produktu hori kanpotik herrira ekarri.

1865ean Martin Agirre zen Deustuko okelen errematantea, herriko harakina. Hogeita bost urte lehenago, gerra karlistaren porrotaren ondorioz, Bizkaia -Hego Euskal Herriko gainerako hiru herrialdeekin batera- Espainiako batasun nazionalen txertatu zuten eta, ondorioz, aduanak gure kostaldera etorri ziren. Haiekin batera heldu ziren Espainiako karabineroak, mugak eta kostaldeak zaindu eta iruzur fiskala eta kontrabandoa borrokatu

Espainiako karabineroen jantziak 1873an



behar zituen zerbitzua. Deustuan kuartela ezarri zuten, Olabeagan (Erriberan), kaitik hurrean, ontzien eta merkantzien joan-etorriak kontrolatzeko. 1865ean 38 gizon zeuden kuartel hartan, Francisco Gomez tenientea buru.

Bada, sasoi hartan, Martin Agirrek keza eman zuen Deustuko Udalean, esanez ba ze karabineroek, iruzurraren aurkako zaindari haiek alegia, Abandotik okela ekartzen zutela. Julian Basabe alkateak Juan Bautista Gaminde zinegotziari eman zion kontu hura argitzeko ardura. Urriaren 23ko goizean Gamindek ikusi zuen karabineroen txalupa baten emakumea zetorrela Deustura, "sirvienta del gefe de esta sección según parece, trayendo carne de la precitada anteiglesia [Abando]". Lehorreratu bezain laster, zinegotziak haragia bahitu eta harakinaren andreak eman zion. Handik gutxira, Gaminde etxera zihoanean, "en el camino fue gravemente atropellado por un individuo de aquel cuerpo [karabineroa]".

Urriaren 23a egun luzea izan zen Deustuan. Agirre harakinaren andreak kexa berria eman zuen karabineroen aurka. Segidan alkateak eta Gamindek Gobernadore Zibilarengana jo zuten, Bilbora. Hara deitu zuen gobernadoreak karabineroen komandante Rafael de la Serna ere. Honek berba eman zuen Olabeagako karabineroek ez zutela kanpotik haragi gehiago ekarriko.

Zinegotzia preso

Egun bi geroago, karabineroek lehengo lepotik burua. Goizeko zortzietan harakinaren emakumeak kaboak eta karabineroa ikusi zituen Abandotik Olabeagara okela ekartzen. Kendu nahi izan zien, baina karabineroek ezetz. Andreak indarrez hartu nahi izan zuten, haragia behegainera jausi zen eta karabineroak, haserre bizian, emakumea sakatzen hasi ziren. Hark aldarri egiteari ekin zion eta laster zen han deustuar andana, gizon nahiz emakume, karabineroekin suminduta. Herriko txinela ere han zen baina karabineroek ez zioten jaramonik egin. Ostean Gaminde zinegotzia azaldu zen, lasaitasuna ezarri nahian.

Karabineroak, oster, ez ei zeuden baretzeko gogoz. “-Nor zara zu?”, galdetu zion Gaminderi kaboak. “-Deustuko elizateko erregidorea naiz ni”. “-Ea, ba, erakutsi zure agintearen intsignia”. “-Ez dut behar, deustuar guztiek ezagutzen nautete eta”. Hori entzunda, kaboak harrapatu eta tartarrez kuartereraino eraman zuen. Deustuarren haserreak goia jo zuen.

Orduan hartu zuen esku Deustuko Udalak. Herritarrek lasaitu zituen, Olabeagako karabineroen komandanteari eskabidea bidali zion

Euskal emakume langileen zirriborroak, Didier Petit de Meurvillek 1860ko hamarkadan egindakoak. Argazkia: albumsiglo19mendea.net



Gaminde askatzeko, eskribaua deitu zuen auzia irekitzeko eta Gobernadore Zibilari idazkia igorri zion, gertatutakoaren jakitun ipintzeko.

Gaminde, hala ere, ez zuten berehalakoan askatu. Bost ordu eman zituen ziegan Gamindek, libre utzi zuten arte. Askatu eta segituan agertu zen Olabeagan Gobernadore Zibila.

Arratsaldeko zortzietan Deustuko Udalak auzitegi bidali zuen sumarioa. Horren ondorioz, Francisco Gomez tenientea, Vicente Saavedra kaboak eta Benito Alvarez karabineroa auzipetu zituzten, udal ogasunari iruzurra, abusuak eta agintariari eraso egin izana leporatuta. Azkenean Bilboko epaileak auzia artxibatzeko agindu zuen, auzitegi militarrek epaituko zutelakoan.

Ez dakigu libratu ote ziren. Urtebete geroago, epaileak jakinarazpen bat emateko deitu zituzten kaboak eta karabineroa giltzapeturik zeuden. Baina ez dakigu zergatik. Eta ez dakigu, txosten horietan guztietan behin ere ez zutelako aipatu, karabineroei aurpegia eman zien emakumearen izena.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



EUSKAL HERRIKO ESLAVIARREN KULTUR ELKARTEA

Kultura eslaviarra mantentzea eta euskaldunarekin nahastea, hori da Europako ekialdetik gurea etorritako 40 lagunek sortutako elkartearen helburua.

Sortu berri da ACEV (Asociación Cultural Eslavos-Vascos), Euskal Herriko eslaviarren kultur elkarte. 40 lagun inguruko taldea da, haien kulturara, ohiturak eta hizkuntzak mantendu asmo dutenak.

Batzuek hamarkadak daramatzate gurean eta beste batzuk iritsi berriak dira. Arrazoi desberdinengatik haien herrialdeak utzi eta Euskal Herrian aurkitu dute bizitoki berria. Eslaviar jatorriko komunitatea osatzen dute Bilbon. Antzinako Sobietar Batasuneko errepubliketatik datoz batez ere: gehienak Ukraniarrak dira, gainontzekoak, Bielorrusia, Errusia, Moldavia, Uzbekistan, Kazakhstan, eta Errumaniatik datoz.

Askok aspalditik ezagutzen dute elkar, izan ere, Europa erdialde eta ekialdetik lagun berri bat Bilbora iristen denean harremanetan jartzen dira. Besteak beste, hizkuntzarekin eta hasierako izapideekin lagundu, denda eslaviarrak non dauden azaldu eta bakarrik senti ez daitezen haien adiskidetasuna eskaintzen diete heldu berriei.

Hogei urte bete dira Natalia Euskal Herrian bizi denetik, eta berak azaldu digu zergatik erabaki duten orain urteetan ehundutako sarea elkarte gisa egituratzea.

“Urte asko daramatzagu hemen, eta gehienok elkar ezagutzen dugu. Urtero elkartzen gara egutegian markatutako egun handiak ospatzeko, hala nola, maiatzaren bederatzian; Sobietar Batasunaren Garaipenaren Egunean, martxoaren zortzian; Emakume Langilearen Egunean, Pazko-astean eta Gabonetan”.

Azken aldian, baina, ekitaldiak antolatzeke oztupoak izan dituzte. Esaterako, IFK zenbaki faltak arazoak ekarri dizkie entseatzeko leku bila ibili direnean eta, horiek ekiditeko elkarte sortzea erabaki dute.

Hainbat helburu dituzte esku artean: elkarri laguntzea, auzokoekin harremanetan jartzea, kultura eslaviarra mantentzea eta seme-alabei transmititzea eta euskaldunarekin nahastea. Handik dator ACEV izena (Asociación Cultural Eslavos-Vascos), Euskal Herriko Eslaviarren kultur-elkarte, hain zuzen.

“Gure kultura mantendu nahi dugu, baina gure burua baztertu gabe. Euskal Herrian bizi gara, gure lagun, bikote eta seme-alabak euskaldunak dira eta horregatik bi kulturak uztartu nahi ditugu”, azaldu digu Natashak.



Pedro Astigarraga plaza, 4
(sarrera Kanariar Uhartek kaletik)
48015 Bilbao
94 400 77 36 / 688 74 36 03
mikie@mikiemontessori.eus



Dantzan, koruan, eskulanetan eta sukaldaritzan aritzen dira. Eslaviar erritmoak eta kantuak interpretatzen eta moldatzen dituzte, eta horretarako erabiltzen dituzten jantzi eta apaingarriak propio eskuz egiten dituzte.

Eslaviar doinuak ez ezik, euskaldunak ere lantzen dituzte. Azken hilabeteotan Txoria txori ikasi dute. Nahiz eta gehienek euskaraz hitz gutxi jakin, uztailaren lehenean Munduko Jendea jaialdian abestu zuten, eta horrekin batera, eslaviar eta euskaldunen arteko dantza bat antolatu zuten.

“Bi ilara egin genituen, batean euskaldunek eta bestean eslaviarrok dantzatu ginen”, kontatu digu pieza sortu zuen Aksana kideak. Bertan, euskaldun-eslaviar bikote gazte baten maitasun istorioa antzeztu zuten, gurasoen eragozpenen gainetik elkarrekin egotea lortzen dutenak.

“Horrela, adiskidetzen diren bi herri irudikatu genituen, bai eta gure herrian emakumeek duten bizimodu gogorra ere: oso gazte direla ezkondu, gurasoen etxea utzi behar, bizitza osoan gogor lan egin eta asko sufritzen dutenak”, diosku Aksana koreografoak.

Entseatzeko toki bila

Arestian esan bezala, elkartea osatu berri dagoenez, zailtasunak dituzte entseatzeko toki bat aurkitzeko. Dantzak eta kantuak praktikatzeko kalera ateratzea gustatzen zaie, parke edo plazetara joan ohi dira musika ekipo eta guzti, baina aurtengo negu eta udaberri eu-

ri suak oztopo handia izan dira horretarako. Toki estali baten bila hainbat elkarteren eta udaltegiren ateak jo eta gero, Ibarrekolanda-San Inazioko Errondoko Auzo Etxearekin egin zuten topo. Bertan egon dira azken hilabeteotan, eta irailtik aurrera espazioa erabiltzen jarraitzeko gogotsu daude.

Parte hartzeko deia

Hurrengo ikasturtera begira proiektu anitza osatzeko asmoa dute. Dantza, hizkuntza eta ohitura eslaviarrik ikasteko grina duen jende bila dabilta, baita euskal dantzak eta doinuak erakusteko prest dagoen jendea ere. Bi kulturaretako adierazpen artistikoak uztartu eta ikus-kizun berriak sortu nahi dituzte. Horretarako, jendea behar dute eta euskara balekite, hobe, izan ere, euskara ikasteko irrikaz daude.

Kontaktua: cultura.eslava.vasca@gmail.com



berbetan

BEA ARREGUI GAMIRrekin

Futbol epailea

“Gero eta emakume gehiago

16 urterekin belauneko lesio baten ondorioz futbola utzi behar izan zuen. Orain dela bost urte beste modu batera itzuli zen berdegunera: epaile gisa. Iaz emakumeen lehen mailako arbitro izatera igaro zen, Euskal Herrian aitzindaria.



ikusiko ditugu arbitro izaten”

Nola hasi zinen arbitratzen?

Nire aitak Bizkaiko Futbol Arbitroen Batzordean lagun bat zeukan eta horrek esan zion epaile izateko ikastaro bat antolatuko zutela. Aitak proposatu zidanean “zergatik ez?” erantzun nion. Futbola berartzeko modu bat bezala ikusi nuen eta animatu egin nintzen. Hasieran denboraldi bakarra iraungo nuela uste nuen, baina bost daramatzat dagoeneko.

Gaztetan futboleant aritzen zinen, zergatik utzi zenuen?

16 urte bete nituen arte jokatu nuen futboleant, baina belauneko lesio baten ondorioz utzi egin nuen. Orduan gazteagoa nintzen eta nagia ematen zidan entrenatzeak. Ez dakit orain utziko nukeen, agian bat-bateko erabakia izan zen.

Planteatu duzu berriro futboleant jokatzen hastea?

Orain ez, ezin dut. Orain nagoen mailan ezin naiz aldi berean jokalaria eta epaile izan.

Zenbat denbora daramazu epaile izaten?

Bosgarren denboraldia bete berri dut.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Gauza asko hartzen dituela barne. Joko baten epaile izateaz gain, pertsona bezala ere hazi egiten zara. Arbitratzen hasi aurretik ez nuen batere pazientziarik, baina patxada handiagoa daukat. Gainera, jende asko ezagutu dut, orain lagun onak

direnak. Ez da partidak arbitratzea eta listo, askoz gehiago da.

Ezberdin ikusten da futbola epaile baten ikuspegitik?

Bai, desberdina da. Oso jende gutxik eza-gutzen du futbola epailean ikuspuntutik, baina askok kritikatzten dute.

Zer prestaketa behar du epaile batek?

Lehen ez zegoen prestaketa sakonik. Nik egin nuen ikastaroan batik bat jokoaren arauak eta txilibitua ondo erabiltzen azaldu ziguten eta, berehala, futbol zelaira ‘bota’ gintuzten. Hasieran, haurren eta kimuen partidak epaitzen hasi nintzen. Gero, esperientzia biltzen joan nintzen eta pixkanaka mailaz igotzen hasi nintzen. Erronkak gaindituz esperientzia handitu eta arbitro gisa hazten joan naiz.

Gogoratzen duzu arbitratu zenuen lehen partida?

Bai, kimuen partida bat izan zen. Oso urduri nengoen, ez nintzen zelaiant barrena mugitzen, ez nekien non kokatu... Orain holako bat arbitratzeak ez nau urduritzen.

Epaitzen zaila izan zaizun partida bat?

Ez nuke jakingo bakarra esaten, denak dira desberdinak. Egia da batzuk besteak baino zailagoak direla, adibidez, jokalaria edo zaleak elkar joka hasten badira. Kasu horietan blokeatzen zara, zer egin jakin barik, baina aurre egiten jakin behar da, burua hotz.

“Ez da partidak arbitratzea eta listo, askoz gehiago da”

▷ ▷ SAKONEAN

“Deustuko emakumeon futbola ez da batere ikusten”

Zein da emakumezkoen futbolaren egoera Deustualdean?

Ez da batere ikusten. Deustoko emakumezkoen taldea desagertu zen, Salesianoetan ez dago eta San Inazioko taldea baino ez da geratzen. Ia guztiz galdu da eta ez dakit oso ondo zergatik.

Ezberdin tratatu zaituzte emakume izateagatik?

Inoiz ez dut arazorik izan inongo talderekin. Batzuetan jendea harritzen da epailea emakumea dela ikusten duenean, baina ez txarrerako. Egia esan, uste dut emakumezkoen gizonezkoen baino egur gutxiago ematen digitela.

Emakumezko arbitrajearen etorkizunaz, zer?

Pixkanaka-pixkanaka aurrera egingo du eta gero eta emakume gehiago ikusiko ditugu arbitro izaten.



Zaila da erabakiak hartzea?

Bai, beti egongo da norbait zure erabakien aurka, ez dira inoiz bi aldeak pozik egongo. Erabaki batzuk besteak baino zailagoak dira, esate baterako, norbait kaleratzea, talderen bat beheko postuetan badago zigortzea... Unean bertan hartu behar ditut eta gerora konturatzen naiz agian bestela erabaki behar nuela. Giroak askotan baldintzatzen zaitu.

Inoiz mehatxatua sentitu zara?

Bai, harmailetan egiten diren komentario batzuk entzuterakoan. Epaileok zelaian bakarrik gaude eta zailtasunak ditugu beste epaileekin hitz egiteko. Jokalariak ez, ordea, haiek euren artean babesten dira. Horregatik, erabaki zailak gure kabuz hartzen ikasi behar dugu.

Zer behar da epaile izateko?

Nire ustez, behar den lehenengo gauza pazientzia da. Jende askorekin tratatu behar da eta bakoitza bere arazoekin dator zelaia. Partida kontrolpean izaten ikasi behar da. Batzuetan ez da ezer gertatzen eta beste batzuetan denak dabilta ostikoka. Jokoaren arauak jakin behar dira, noski, araudian dauden aldaketak ezagutu eta fisikoki prestatuta egon.

Zelan antolatzen dituzu entrenamenduak?

Egingo dizkidaten proben arabera, adibidez, lasterketa jarraituak eta 400 eta 800

metroko serieak egiten ditut.

Zenbatero egiten dizkizuete proba fisikoak?

Denboraldian hiru proba egiten dizkigute, uztailen, azaroan eta martxoan, eta gizonetako epaitu ahal izateko beste hiru: irailean, azaroan eta maiatzean.

Non entrenatzen zara?

Basaurin eta Lezaman. Orain lau emakume gaude eta taldean internazionalak diren gizonetakoak ere badaude.

Zelan prestatzen duzu zure burua partidai aurre egiteko?

Ez dago modurik. Egin daitekeen gauza bakarra da partida asko arbitratu eta bakoitzak dituen erronkei aurre egitea. Horrela hazten da epaile bezala, baita pertsona gisa ere.

Gogoan duzu lehenengo mailako partidak arbitratzera igaro zinen unea?

2017ko ekainean proba fisikoak egin genituen eta emaitzak handik hilabetera kale-ratu zituzten. Momentu horretan lehenengo mailara nirekin igo zenarekin nengoen, eta berak esan zidan zerrenda argitaratuta zegoela. Hasieran beldurra eta larderia apur bat eman zidan. Nahiz eta susmatzen nuen, zerrendan nire izena ikusi arte ez nuen sinistu. "Orain honi egin behar diot aurre", esan nion nire buruari, baina poztu ere egin nintzen, 45 hautagaien artean hartu nindutelako.

Futbol epaile izatea zuretzat zaletasuna ala lana da?

Hasieran hobby bat zen, baina gero eta gehiago gustatzen zait. Dena den, ez dut uste honetaz biziko naizenik. Nire ikas-

ketak ditut eta lanean nago orain, baina arbitratzea lan handia ere bada. Denbora eta ahalegina eskatzen ditu, adibidez, nik astebururo partidaren bat epaitzen dut: Iberdrola ligan, bigarren mailan, erregionalen, gizonetako futboleant...

Zein da arbitratzeko urrunen joan zaren tokia?

Urrunena Tenerife. Bi urtetan joan izan naiz. Alde batetik, bidaiatzea esperientzia polita da eta leku berriak ezagutzen dituzu horrela, baina, bestetik, ez zait turismoa egitea gustatzen arbitratzera joaten naitenean, beti daukadalako zereginen bat. Gainera, etxean egotea gustatzen zait, baita lagun eta familiarekin denbora libre izatea ere. Horretarako, ondo kudeatu behar ditut lana, entrenamendua eta partidak.


Erreferenteren bat?

Euskadiko Futbol Federakundean Ricardo de Burgos epailea dago, gizonetako futboleko lehenengo mailakoa eta internazionala. Gurekin entrenatzen da eta gu bezala hasi zen, behetik. Begiratu non dagoen orain! Zergatik ez dugu berdina lortuko? Emakumezkoen ligan bere bidea jarraitzea gustatuko litzaidake.

Amets bat?

Momentuz esperientzia biltzen jarraitu nahi dut eta egunen batean internazionala izatera heltzen banaiz, itzel. Espainiar estatutik kanpoko zelaiak ezagutzea ondo egongo litzateke. Bitartean, lanean jarraituko dut, partida bakoitzetik ikasten. Oraindik lehenengo mailara ohitu behar dut, emakumezkoen bigarren mailatik lehenengora salto handia baitago.

"Erabaki zailak gure kabuz hartzen ikasi behar dugu"



FILMAKETA

Mikel Ruedaren *El doble más 15* filma grabatzen ari dira

Azken asteotan Ibarrekolanda, San Inazio, Elorrieta eta Erribera inguruan Mikel Ruedaren hirugarren film luzea grabatzen ari dira. *El doble más 15* da pelikula berriaren izenburua eta ideia 2016an Zinebin aurkeztutako *Caminan* laburmetrailetik sortu zen. Protagonistak berdinak dira: Maribel Verdu eta German Alcarazu. Zuzendari bilbotarraren pelikula berriak oso desberdinak diren bi pertsonai elkartzeko, istorio osoan zehar nor diren hausnartzen arituko direnak. *El doble más 15* filmeko lantaldea sei asteko grabaketan dago murgilduta, eta lokalizazio guztiak Bilbo inguruan daude. Estreinaldia 2019ko erdialdean izango da.



IBAIGANE

Ikasleen egoitza bihurtuko dute Ibaiganeko eskola ohia

Eskola itxi zutenetik lau urte igaro eta gero, enpresa batek eraikina erosi du, zazpi solairuko ikasle egoitza bihurtzeko asmoarekin. Ibaigane EAEn itxi zuten lehen itunpeko eskola izan zen, eta kalean utzi zituen 38 irakasle eta 280 ikasle. Ez da, ordea, Bilbon beste jarduera batera bideratuko den eskola bakarra; izan ere, Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren aldaketari esker, guztira Bilboko bost eskola eraberrituko dituzte. Otxarkoagan Lope de Vega eskola (2011n itxitakoa) ikasle egoitza bihurtuko dute, eta Ramon Y Cajal eskolan gune Udaltegia ireki nahi dute. Begoñako Andra Mari irakasleen eskolan gotzaindegiak Bilbo eta Bizkaiko hainbat sailen egoitzak ezarri nahi ditu, unibertsitateko hezkuntza jarduerak mantenduz. Azkenik, Udalak Kale Nagusian daogoen Vera Cruz Ikastetxeko eraikinean auzoko Lanbide Heziketako zentroa handitu nahi du.



PREST!

Iritzigile berriak


Irailetik aurrera bi iritzigile berri izango ditugu PRESTen. Arantza eta Gaizkaren urtebeteko ibilbidearen ostean, Nerea eta Mikelek hartuko dute lekukoa. Haiek arduratuko dira hilerio aldizkariko iritzi artikulak idazteaz. Nerea Etxaniz Osa Deban jaioa zen, Zarautzen hazi eta 18 urte zituenetik Bilbon bizi da. Hogei urte daramatza Deustuko Erriberan “goxo, gustura eta auzoko faunarekin bat eginda”. Euskara irakaslea da eta musika, liburuak, filmak eta garagardoa ditu atsegin. Mikel Aiertzagüena Deustuar gaztea da. Medikuntza ikaslea, gazte mugimenduko kide eta “hausnarketara bideratutako erregeldea”. Irailetik aurrera eta hurrengo uztailera bitartean, hilabetero izango dugu haien gogoetak irakurtzeko aukera. Zuk ere iritzi, artikulua edo hausnarketaren bat plazaratu nahi baduzu, PREST-en baduzu tartea!



Euskalduna Zubiko oinezkoen sarbide batek itxita jarraitzen du

Ekainaren 28an zubiak irristatze bat izan zuen egituraren. Hormigoizko plaka bat apurtu eta 40 zentimetroko haustura eragin zuen. Dirudienez, asentatze mugimendu bat izan zen, eta ez da gertatzen den lehen aldia. Egunean bertan ireki zuten zubia kotxeentzako, egitura orokorrean eraginik izan ez zuela egiaztatu eta gero. Oinezkoentzako sarbide batek itxita jarraitzen du; Botikazarreko aldapakoak, hain zuzen, egitura mugitu zen tokitik oinezkoak

pasatzea saihesteko. Arrakalan plaste batzuk jarri dituzte, zubiaren estalkiak behera egiten jarraitzen duen egiaztatzeke. Oraindik ez dituzte arrazoiak argitu, baina hipotesietako bat Zorrotzaurreko kanalaren obrak izan daitezke. Hala ere, langileek adierazi dutenez, matxura lanak hasi baino lehen zegoen eta beraz, ezin dute ziurtatu hori hala denik. Zorrotzaurreko kanalaren obrek, aurten jasotako eurriak, edo beste gabe, urteen higadurak ere eragin dezakete.





Urtea: 2018

Txema Luzuriaga

Kanalaren amaiera 90 urteren ostean

Horrela dago Deustuko kanala orain. 30eko hamarkadan hasi eta 90 urtetan zehar amaitu gabeko hainbat proiekturen ostean, kanala ikusiko dugu azkenean.

Deustu eta Erribera lotzeko Frank Gehry izeneko zubi bat eraiki zuten, oinezkoentzat 2015eko irailaren 14an ireki zutena.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

~IZEKI~
TABERNA
 BETI ZIZEKAN SUA
 argi bat izeki zen zeruan
 su horidun sugarra ostopo
 itzalsuen atzean
 Ramon & Kaja 26
 DEUSTU

DENDA IREKIERA
 Gizonentzako denda

Level 1

Madariaga 10 DEUSTU
 level1.es 946 85 53 80

Optica
Avenida

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
 SAN INAZIO 94 475 11 24

ATXURI
TABERNA

Luzarra 1
 Deustu
 946 75 40 17

BREST

kafetegia
 Blas de Otero, 5
 Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak

Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
 48015 Deustu-Bilbao
 Tel.: 94 600 14 24
 alonsoper@euskalnet.net

Urrunago zertarako?
 Deustuko Liburudenda
 San Pedro Plaza 4

Yoki Berrri
 Taberna
 Good vibes!

Luzarra, 6 - Deustu
 @tokiberritaberna

1924tik Deustun

Tintorería
La Flor

Julio Urquijo 3 - Deustu
 94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze
 jantziak...garbitzen ditugu

artez
 euskara zerbitzua

Probatu
herrizki.eus

ANDROID APP Google play Apple App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
 48014 Deustu
 tel. 94 475 22 33
 matxintxu@aeknet.net

Matxintxu
 aek ■ euskaltegia

Matrikula zaitetz! **aek**

Nailan
 Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g
 48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84
 nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
 HORTZ KLINIKA

Iratxe Jimenez Bobadilla
 ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa
 Ume eta helduak
 Tratamendu estetikoak eta garbiketa
 Peridontzia eta protesi kengarriak
 Ortodontzia

PADI
 OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
 E.P.S. 425/97

Bitxidenda

Sabin
 Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6
 Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS

Deitu eta Ikusi!!

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao
 TEL. 94.447.70.32
 E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
 www.persianaskm.com

BIDAURRE
 elektrizitate eta margo-lanak
 2daurrelan@gmail.com
 669 42 76 23

**Zeozertarako balio du
Bilbobusetan emakumeek
geltokien artean jaisteko
aukerak?**




**Haizea Anton
Olabeaga**

Bai, neurri garrantzitsua dela uste dut. Olabeagan bizi naiz eta gauez ez dugu autobusa hartzeko aukerarik, baina taxian joaten naiz etxera. Gune beltz baten ondoan bizi naiz eta taxista nire zain egoteak lasaitasuna ematen dit.



**Asier Villuela
Usansolo**

Bai, emakumeak seguruago joan daitezke etxera. Mutilak gero eta arriskutsuagoak dira.



**Koldo Gallego
Erribera**

Emakumeak lasaiago ibiliko dira horrela baina neurri horrek ez du arazoa konpontzen. Gizartea kontzientziatu behar dugu, behingoz konpondu beharreko arazoa da erasoena.



**Emilio Armario
Erribera**

Erosoagoa dela uste dut, batez ere gaztetxoentzat eta beraien gurasoentzat



**Iratxe Ureta
Barakaldo**

Ez dut uste horrekin ezer aldatuko denik, erasotzaileek pairatzen dituzten ondorioak aldatu behar direla uste dut, dohainik ateratzen zaielako. Hezkuntza eta errespetua bultzatu behar dira.



**Virginia Fernández
Leioa**

Bai, baliogarria da. Eskertzekoa da etxera itzultzean bakea sentitzea, ongi etorria da beti gauez bakardade metroak arintzeko balio duen edozein neurri.



ERATURA-MUSIKA-DANZA-ANTZERKIA-MENDIA-

harkua bete berba



>> BILBOKO AUZOAK

AUZOEN ARTEKO ARRAKALA

Gero eta nabariagoak dira Bilboko auzoen arteko desorekak. Urbanizazioan, irisgarritasunean, segurtasunean, errenta-mailan, bizi-kalitatean eta, ondorioz, bizi-itxaropenean ere.

Testua: Jone Gartzia - **Argazkiak:** Amaia Arenal eta Alba Fatuarte

Eustat eta Bilboko Auzoetako Hiri Behatokiak datuei erreparatuta Bizkaiko hiriburuan bi errealitate oso desberdin igarri ditzakegu: erdiguneko hiria, zerbitzu eta turismora bideratutakoa; eta inguruetako lo-auzoak, batzuk baztertuak eta besteak gentrifikazio prozesuan bete-betean murgilduak.

Eustaten arabera Bilbo da EAEko hiriburuen artean errenta-desberdintasun handienak dituen: auzo "aberatsetan" hirukoiztu egiten dira auzo "txiroetako" diru-sarrerak. Datuok diote hiriko batezbesteko errenta pertsonala urtean 20.313 eurokoa dela. Abandon eta Indautxun, adibidez, 34.844 eta 33.958 eurokoa da, Iturrigorrikoa (10.193€), Uretamendikoa (11.153€) eta Otxarkoagakoa (11.172€) baino hiru aldiz handiagoa.

Deustualdean desberdintasunak ere nabariak dira. Diru-sarrera altuenak Done

Petri (22.799€) eta Ibarrekolandako (20.190€) auzotarrekin jasotzen dituzte. San Inazioen batezbesteko soldata urtean 18.143 eurokoa da, Erriberan 15.840koa eta Arangoitin 14.069 eurokoa.

Desorekak arrakala eragiten du elikaduran, bizi-kalitatean, mugikortasunean eta hezkuntza mailan. Errenta baxueneko auzoetan zaborjan denda gehiago dago, eta aisirako eta kirolerako aukera gutxiago.

Behatoki estatistikek nabarmentzen dute inguruetako auzoetako bizilagunak gehienbat lehen eta bigarren sektoreko lanetan aritzen direla, eta erdigunekoak zerbitzuetan egiten dutela lan batik bat. Zerbitzuetara gehien bideratutako auzoak Abando eta Indautxu dira; eraikuntzan Otxarkoaga eta Txurdinagakoak aritzen dira batez ere; industrian Begoña, Bolueta eta Santutxuko bizilagunak eta lehen sektorean ibaiondotarrak. Era

berean, azken barruti honetara langabetu gehien (%10,4), eta Abando-Indautxuk gutxien.

Ikasketa mailari erreparatzen badiogu, Eustaten datuen arabera, Abando eta Indautxuko artean %48ak goi mailako ikasketak ditu; Iturrigorri, Otxarkoaga eta Uretamendin %6ak baino ez. Deustualdera begira, Done Petriko auzotarren %36ak goi-mailako ikasketak egin ditu, Ibarrekolandako %29ak,

Erriberako %27ak, San Inazio %24ak eta Arangoitik %13ak.

Honek guztiak, ezinbestean, bizi-itxaropenean eragiten du. EHUko OPIK ikerketataldeak 2016an argitaratutako txostenaren arabera, Indautxuko gizonezkoak batezbeste 81 urte bizi dira; San Frantzisko eta Bilbo Zaharrekoak, ordea, 75. Emakumeen artean desberdintasunak txikiagoak dira: 87 eta 84 urte hurrenez hurren.





<http://bilbo.euskaraldia.eus/>

Bilboko Euskaraldiaren webgunea

Bilboko Euskaraldiak webgunea plazaratu du. Bilbo.euskaraldia.eus atarian 11 egunetako erronkaren inguruko informazio guztia dago, Bilbori dagokiona. Hala nola, agenda, ekitaldiak, berriak, baliabideak eta harremanetarako kontaktua biltzen ditu Bilboko Euskaraldiaren inguruko informazioa jasotzen duen atari digitalak.

<https://www.liburubila.euskadi.eus/>

Liburubila bilatzailea



Eusko Jaurlaritzak Liburubila bilatzailea jarri du martxan. Bertan milaka liburu digital, pelikula, disko eta bestelako artxiboak doan eskuratu daitezke. Gainera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako liburutegi publikoen sarera konektatuta dagoenez erabiltzaileek biltzen ari diren liburuak, pelikulak edo diskoak zein liburutegitan dauden kontsultatu eta eskatu ahalko dituzte.

Gurera itzuliz, ikerketak argitzen du Done Petri eta Erriberako gizonezkoak 80,21 urte bizi direla eta emakumezkoak 87,5. Ibaurrekolandako gizonen bizitxaropena 79,48 urtekoa da eta emakumeena 85,94koa.

Arrazoiak

Desberdintasunak urteetan joan dira handitzen. Industrializazioarekin batera, atzerriko langile oldea etorri zen Bilboko fabriketan lana bilatzera eta bizitokia erdigunetik baztertutako lur merkeetan aurkitu zuten, oso baldintza gogorretan.


Kaleak eta auzoak etengabe aldatu dira Bilbo industrial turistiko bihurtzeko bidean, baina ez erritmo berean. Erdiguneko barrutietan galtzadazabal eta erosoak aurki ditzakegun bitartean, langileen auzoetan (gehienak pendizean) irisgarritasun arazoak topatuko ditugu.

Bilbo turismora begira haziko bada eta auzotarron arteko elkartasuna ez badugu estutuko, arrakalak zabalzen jarraituko du.

Hiruka - App

Hiruka komunikazio-taldeak aplikazio pertsonalizatu eta berritua kaleratu du, "Urbe Kostan gertatzen dena eta erabiltzaileen arteko harremana sendotzeko". Besteak beste, jaien egitarauak, webgunean argitaratutako albisteak, agenda eta argazki zein bideo galeriak sakeleketik ikusteko eta irakurtzeko aukera ematen du. SOS botoia ere erantsi diote, sexu-erasoen aurkako botoi zuzena.

EraStop - App



Eraso sexistak unean bertan salatzen aplikazioa probatuko dute Aste Nagusian. Hiru botoi ditu aplikazioak: larrialdietako botoia, ikusitako eraso bat salatzen botoia eta etxera bidean agendako kontakturen bati lokalizazioa bidaltzeko botoia. Erasoa matxistak salatzea da aplikazioaren asmoa, baina bestelakoak ere salatu daitezke.

>> ARRAUNA

DEUSTUKO KANALAREN BESTE ALDERA



Udako denboraldia hasi berritan Deustu Arraun Taldea Erriberako pabiloila utzi eta San Inaziora lekualdatu da. Eraikina Zarandoa etorbidean dago, Deustuko kanalaren beste aldean.

Testua: PREST! - **Argazkiak:** Deustu Arraun Taldea, M. Roman eta Iñaki Suarez

Uztailaren bederatzian material guztia lekualdatzen amaitu eta behala hasi ziren instalazio berria erabiltzen. Ekaina amaieran ziren lekualdatzekoak, baina apal batzuk eta uretara jaisteko arrapala jarri gabe zeudenez, ia bi aste atzeratu ziren lanak.

Arraun pabiloi berria Deustuko kanalaren beste aldean dago, San Inazioko Zarandona etorbi-

dean, Idomeko eraikinaren parean. Solairu bakarreko erakinak 1.500m² ditu eta bertan ontzientzako hangarra, entrenamenduak egiteko sakonunea, gimnasioa, tailer-biltegia, bost aldagela, komunak, kabinete medikoa, administrazioarako gunea eta bilera gela ditu.

Oraingoa baino handiagoa izateaz gain, uretara joateko arraun-

lariak ez dute errepidea gurutatu beharko. Hala ere, Deustu Arraun Taldea bere betiko "inguru naturaletik mugitu" dutela aitortu digu penaz Josu Ortube kirol zuzendariak.

Alde txarrak

Arraun denboraldia hasita dagoela material guztia lekualdatu behar izatea, ordea, traba handia izan da taldearentzat. Pabiloi berria noiz irekiko zain zeudenez, gauzak pixkanaka-pixkanaka mugitu behar izan zituzten, eta horrek astetean zehar entrenamendurako materiala bi toki desberdinetan sakabanatuta izatea eragin die.

"Guretzako askoz hobeto zen irailan lekuz aldatzea, denboraldia amaitutakoan, baina Udalak presioa egin digu Deustuibarrako pabiloila ahalik eta lasterren hustutzeko", argitu digu Aitor Mojas zuzendaritza-batzordeko kideak. Deustuko Erriberan ikono bihurtako arraun pabiloila laster eraitziko omen dute, Zorrotzaurreko urbanizazio planaren baitan.



Helbide berriak duen beste alde negatibo bat kanala oraindik ireki gabe egotea da. Entrenatzeko ez da oztopo, itsasadarrean gora eta behera aritzen baitira, bai ordea abuztuaren 19an, Aste Nagusian, Bilbon egingo den estropadarako.

Arraunketa Udaletxetik abiatzen da, baina kokaleku berriak ezin dira zuzen joan. Orain Zorrotzaurreko puntaraino joan eta berriz itsasadarrean barrera jarraitu beharko dute estropada hasten den puntaraino. Guztira, joateko lehen baino hiru kilometro gehiago egin beharko dituzte, eta beste hiru berriz ere pabiloiera itzultzeko.

Denboraldi hasiera bikaina

Emakumezko zein gizonezkoetan, bikain hasi du udako denboraldia Deustu Arraun Taldeak. "Gizonezkoetan nahi genuen tokian gaude", diosku Ortubek, eta emakumezkoetan Euskotren Ligan sartzea lortu ez badute ere, denboraldi hasiera ona egiten ari direla azaldu digu. Izan ere, liga gorenean sartzea "oso zaila da", kirol zuzendariaren hitzetan.

ETE Ligan dihardute Deustuko emakumeek, Emakumezkoen Traineruen Elkarteak antolatutakoa. Aurten sortutako bigarren mailako liga da ETE, Euskotren Ligaren azpitik. Liga berria 2010ean sortutako Emaku-



mezkoen Gipuzkoako Traineru Ligaren oinordekoa da, eta arraun ligak berrantolatzea du helburu. Hala, bi ligen artean igoyerak eta jaitsierak egin ahal izango dira, besteak beste.

Uztailaren 8an jokatu zen ETE Ligako lehen estropada puntuagarria Kontxan. Bandera Donostiarrak eskuratu zuen, 11:23ko denborarekin, eta 16 segundora bigarren sartu ziren Deustuarrak. Bigarren estropada puntuagarria Camargon (Kantabira) jokatu zuten uztailaren 15ean. Deustu (11:05) hirugarren sailkatu zen, Hibaika (10:57) eta Donostiarraren (11:00) atzetik.

Gizonezkoek ere ezin baino hobeto hasi dute KAE1 liga. Lehenengo

estropada indartsu hasi zuten, Donibane Lohitzune - Ziburuko bandera eskuratuz (20:45). Hurrengo hiru estropadetan hirugarren sailkatu ziren: Getaria, Zumaia eta Cudeyon (Pedreña, Kantabria). Udako denboraldia hasi baino ez da egin, eta Deustuko arraunlariak gogotsu daude lehen postuetan jarraitzeko.

Gero eta emakume gehiago

Emakumezkoak arraunean gero eta gehiago direla azaldu digu Josu Ortubek, batez ere maila baxuagoetan: "gaztetxo asko hurbiltzen dira, ia mutilak baino gehiago". Joera hau egonkortuko delakoan dago Deustuko kirol zuzendaria, "gaztetxoak hazi eta maila gorenetara heltzen direnean".

ABUZTU LABORATEGIA
P6
'YO SOY PICHICHI'
CABARÉ TXIRENE

ABUZTUAK 22
ESTREINALDIA

PABELLÓN 6-ko
ANTZERKI LABORATEGIA

www.pabellon6.org



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

PIPERRA TORTILLAZ BETEA

San Inazioko Panpa Bar tabernara jo dugu oraingoan. Levante Enparantzako arkupeetan dago Macuren taberna, Oñatiko Unibertsitatearen 15. zenbakian. Nortasun propioa duen taberna erakutsi digu Macuk, bai eta sortu berri duen pintxo berezi bat ere.

Zailtasun maila: Ertaina

Egiteko denbora: 10 minutu

Prezioa: 1€

Berezitasuna: Euskal Herriko bi janari tipikoek bat egiten dute pintxo honetan

Kontu batzuk

Urriari Macuk argi zeukan nola izango zen bere taberna. Bere helburua ez zen taberna bat zabaltzea bakarrik, izaera propioa zeukan espazio bat sortzea baizik. Horrela, Frida Kahlo agertu zen, Macuri bizitza osoan zehar lagundu dion figura. Orain Saniko jaiak heltzearekin direla, Macu, Frida Kahlo, musika, tortillaz betetako piperrak eta produktu ezberdinak aurkituko ditugu xarmaz betetako taberna honetan.

Panpa Bar tabernako Macu



PANPA BAR

Oñatiko Unibertsitatearen kalea, 15 atzekaldean (Levante Enparantzako arkupeak) 646196539

9:00-22:0, asteburuetan 23-24ak arte. (Ordutegia aldarrikatu da).



Zelan egin?

Lehenengo patata zuritu, zati oso txikietan moztu eta frijitu. Jarraian, arrautza eta patata batu. Ostean,

piperra garbitu eta goikaldean zuloa egin. Amaitzeko, patata eta arrautza-ekin bete piperra eta dena frijitu.

OSAGAIK

*Arrautza
Gernikako piperra
Patata
Oliba olioia
Gatza*



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean


Blas de Otero 30 - Deustu
946 181 118



KABIA

☒ GASTRONOMIA ☒ TABERNA ☒ KULTURA

ORIXE KALEA 48 - SANI - 944 47 93 35



Pedro Carballo Suárez

el OISO ROBLE
CORDECORIA

Plaza San Pedro, 2 • Teléfono: 94 476 43 96 • DEUSTO - BILBAO

ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO



AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



JOSU OLEAGA

Edozein

HYGGE

Duela gutxi irakurri dut daniarrek bultzatzen dutela beste herrialde batzuetan baino, eta hori ez dela gaitasun ekonomikoaren ondorioz. Urteak daramatate munduko herrialderik zoriontsuenen lehenengoak izaten, eta nik haien sekretua jakin nahi nuen; asko gustatzen zait sekretuak lapurtzea. Eta gakoa Hygge izeneko zerbait zen. Sekretu guztien moduan, azaltzeko zaila da, eta, horregatik, nik istorio bat kontatuko dizuet.

Ekonomiako masterra eginda zuen gizon batek, zekien guztiaz oso harro zegoenak, arrain handiz betetako txalupa bat portura heltzen ikusi zuen, eta arrantzaleari esan zion: "Zergatik ez zara gehiago geratu eta gehiago arrantzatu?". "Arrain hauek nahikoa dira nire familiarentzat. Goiz jaikitzen naiz arrantzatzeko, eta gero etxera itzultzen naiz nire umeekin jolastera. Arratsaldean lo-kuluxka egiten dut, eta gauean lagunekin geratzen naiz zerbait hartzeko, dantzatzeko eta gitarra jotzeko", erantzun zion arrantzaleak.

Negozio-gizonak aurrera jarraitu zuen: "Itsasoan denbora gehiago eman beharko zenuke, gehiago arrantzatu. Dirua aurreztuko duzu, txalupa handiagoa erosiko duzu. Zure enpresa sortuko duzu, hiri handi batera joango zara bizitzera, errege baten moduan biziko zara, eta aberatsa izango zara". "Eta, gero?", xuxurlatu zuen arrantzaleak. "Gero erretiroa hartu ahal izango duzu, arrantzaleen herrixka batean etxetxo bat erosiko duzu, arrantzatzera joango zara, zure umeekin jolastuko zara, eta zure lagunekin geratuko zara". "Baina ez al da hori gaur egun egiten dudana?". Touché.

Hygge da bizitzaz gozatzea plazer txiki, eroso eta lasaiekin, bakarrik edo konpainia onean. Nor bere buruarekin ona izatea da, nork bere burua onartzea, une atsegin bat bizitzea, nork bere burua ez zigortzea eta nork bere buruari ezer ez ukatzea. Arimaren intimitatea da. Nork bere burua, gauza txikiak, estimatzea da, egiten ari zaren horretan arreta jartzea eta uneaz topera disfrutatzea. Ezer egin gabe zauden uneak estimatzea ere bada, nor bere buruarekin atsegina izatea.

Egia da Danimarkan berdintasun handia dagoela biztanleriaren baliabide ekonomikoaren banaketan, eta Munduko Foro Ekonomikoaren arabera, lehen lekuan dagoela genero-berdintasunari dagokionez. Seguru asko, Hygge delakoa aplikatzeak egoera horretara heltzen lagunduko liguke.



MALEN ORTIZ KALTZADA

Elorri bertso-eskolako kidea

ESTRESA ETA LANA AHAZTUKO DITUGU

Eguzkiak ekarri digu zoriona udaleku ta kanpin hara eta hona herrian bisitatu aitona ta amona uztaila heldu zaigu ta eguraldi ona

Oporrak heldu eta deskantsau nahi dugu parrandak botatzea bebai gure helburu ezagutuko doguz guk hainbat inguru estresa eta lana ahaztuko ditugu



SANIKO JAIAK

UZTAILAK
24-31
DE JULIO 2018

Bilbon
euskaraz



Bilbao

aek

euskara praktikoa

Zu hemen zaude, AEK ere bai

100 euskaltegi baino
gehiago Euskal Herri osoan



BILBO aek euskaltegiak EUSKARA - IKASTAROAK



LIZARDI AEK, (Zazpikaleak)
Perro kalea 1-1 · 944 168 200 · lizardi@aek.eus

INDAUTXU AEK
Urkijo 88 -1 · 944 413 474 · indautxu@aek.eus

URTATS AEK (Irala)
Kirikiño 22 behea · 944 211 304 · urtats@aek.eus

MATXINTXU AEK (Deustua)
Ramon y Cajal 8 behea · 944 752 233 · matxintxu@aek.eus

LARRAKO AEK (San Inazio)
Larrako Torre 24 · 600 585 522 · larrako@aek.eus

ZORROTZA AEK
Zalbidea 7 behea · 944 414 920 · zorrotza@aek.eus

SANTUTXUKO AEK
Arbidea 21 behea · 944 117 656 · santutxu@aek.eus

Eman izena


Euskara-eskolak


Mintzapraktika


Barnetegiak


Autoikaskuntza


Normalizazio-planak


Online


Itzulpenak-Zuzenketak


aizu! aldizkaria

• HABek homologatutako euskaltegiak

• Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak



korrika

www.aek.eus · 673 200 100 · 946 464 000

